

83. EUSKAL SOZIOMETROA (2024ko martxoa) Prensa oharra

SARRERA

83. Euskal Soziometroa 2024 urteko bigarrena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak. Landa-lana 2024ko martxoaren 15etik 20ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoeraren balorazio ona

EAEko biztanleen % 66k uste du Euskadiko **egoera politikoa** ona edo oso ona dela, eta balorazio hori ez da aldatu 2021etik. Espainiako egoera politikoaren balioespena dezente negatiboagoa da: EAEko herritarren % 24k soilik uste du ona edo oso ona dela, eta % 72k txarra edo oso txarra dela.

Egoera ekonomikoaren balorazioa 2002an hasitako seriean orain arte erregistratutako positiboena da. Biztanleriaren % 79k uste du Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela, eta soilik % 19k txarra edo oso txarra dela. Espainiako egoera ekonomikoaren balorazioa ez da hain positiboa: % 39ren ustez ona edo oso ona da, eta % 56ren ustez txarra edo oso txarra. Hala ere, kasu horretan ere joera positiboa da, balorazioa onena baita 2006tik.

Adostasun gutxi dago egoera ekonomikoari buruz espero denaren inguruan; EAEko biztanleen % 22k uste du Euskadiren egoera ekonomikoa urtebete barru hobea izango dela, % 46k berdina izango dela eta % 27k okerragoa izango dela. Espainiako egoera ekonomikoaren bilakaerari buruz iritzi okerragoa dute, % 40k uste dute okerrera egingo duela, eta soilik % 16k hobera egingo duela.

Egungo egoera ekonomikoari eta beren haurtzaroan zuten egoerari buruz galdetuta, EAEko biztanleen % 53k uste du ordutik hona antzeko mailan mantendu dela, % 27k hobera egin duela eta % 20k okerrera egin duela. Gainera, % 20k uste dute etorkizunean beren seme-alabek maila ekonomiko altuagoa izango dutela beraiek egun dutena baino, % 61ek antzekoa izango dela eta % 19k maila baxuagoa izango dutela.

Euskadiko biztanleen % 69k dio ez duela **zailtasunik hilaren amaierara iristeko**; % 25ek, berriz, arazo batzuk ditu, eta % 5ek, berriz, arazo asko. Ehuneko horiek ia ez dira aldatu azken urteotan.

Norberaren lan egoeraren balorazio ona eta poztasuna egungo lanpostuarekin

Euskal herritar gehienek uste dute beren **lan-egoera** nahiko ona (% 48) edo oso ona (% 22) dela.

Euskal biztanleriak **lanpostu** batean garrantzitsuentzat jotzen dituen **ezaugarriak** honako hauek dira: egonkortasuna (% 72k oso garrantzitsutzat jotzen du), ordutegia (% 65), lan interesgarria izatea (% 55), gizartearentzat baliagarria izatea (% 50) eta soldata altua izatea (% 47). 2016arekin alderatuta, gaur egun garrantzi handiagoa ematen zaie ordutegiari eta soldadari, eta zertxobait txikiagoa egonkortasunari.

Langileen % 75 oso edo nahikoa pozik daude gaur egun betetzen duten lanaren interesarekin, % 72 lanpostuan duten egonkortasunarekin, % 70 ordutegiarekin, % 69 lanak gizartearentzat duen baliagarritasunarekin, eta % 56 soldatarekin.

Langileei galdetu zaie gaur egun baino **ordu gehiago edo gutxiago lan egin** nahiko luketen, soldatan alde hori islatuta. Langileen % 59k adierazi du nahiago duela ez aldatu, % 22k adierazi du nahiago lukeela ordu gehiago lan egin soldata handiago baten truke, eta % 14k ordu gutxiago lan egitea aukeratuko luke soldata txikiago baten truke. 2016az geroztik, apur bat gehitu dira bai lanaldia handitzea nahiago dutenak, baita lanaldia murriztea aukeratuko luketenak ere.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Egonkortasuna jarrera eta balio politikoetan

Biztanleriaren % 48k **interes** handia edo nahikoa du **hurrengo Hauteskunde Autonomikoekiko**, eta beste % 51k interes gutxi edo batere interesik ez.

Begikotasun politikoei dagokienez, EAJ da begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 0tik 10era bitarteko eskalan 4,8 punturekin. Ondoren, EHBildu (4,3), PSE-EE (4,1), Elkarrekin Podemos eta SUMAR (3,4 biek), PP (1,7) eta, azkenik, Vox (0,8) daude.

Buruzagi politikoen ezagutza nahiko txikia da oraindik. Imanol Pradales da ezagunena (% 44), eta haren atzetik daude Miren Gorrotxategi (% 43), Eneko Andueza (% 41), Pello Otxandiano (% 36), Javier de Andrés (% 32), Amaia Martínez (% 17) eta Alba García (% 14).

Balorazioei dagokienez, Pello Otxandianok lortu du puntuaziorik onena (5,3 0tik 10erako eskalan), ondoren Imanol Pradalesek (4,9), Miren Gorrotxategik (4,8), Eneko Anduezak (4,2), Alba García (4,0), Amaia Martínezek (3,0) eta, azkenik, Javier de Andrések (2,8).

Herritarren % 43 "euskal herritarra bakarrik" edo "euskal herritarra espainiarra baino gehiago" **sentitzen da**, % 40 "euskal herritarra zein espainiarra" sentitzen da, eta soilik % 10 "espainiarra euskal herritarra baino gehiago" edo "soilik espainiarra".

Bestalde, Euskadiko biztanleriaren % 22 **independentziaren** alde dago, % 33 alde edo kontra egoeraren arabera, eta % 37 aurka.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 1,8koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2024ko martxoaren 15etik 20ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 27a